

Berdintasunaren izenean, amen!

**Miren Azkarate
Badiola**

Zer da berdintasuna zuretzat?», gal-detu zidaten “Amapola morea” irratsaioan motzean erantzuteko galdera batean. Eta nire erantzuna, «oraindik existitzen ez den zerbait». Mantentzen dut erantzuna, eta, ikusita azkenaldian gertatu zaizkidan egoera batzuk, ez dakit noizbait ezagutuko dudan hitz horren esanahia praktikan. Ze teorian ederki ezagutzen dudan hitz bat da, baina ahoa errazegi betetzen zaigun hitz horietako bat dela iruditzen zait.

Ez da orain bat-batean konturatu naizenik berdintasun hori ez dela existitzen, e? Emakume jaio ninduten, eta momentu horretatik bertatik dakidala uste dut. Eta ikusi dut denborarekin aspektu askotan nabarmen aurreratu dugula! Baina esan bezala azken hilabeteetako esperientzia batzuekin ahoa ezin itxi nabil oraindik.

Zazpi hilabetez haurdun nago eta hirugarren hilabetetik aurrera aurkeztu naizen lan elkarrizketa guztietan ez naute hartu lanerako. Guztietan esan dut haurdun

nengoela, batetik ez delako gaixotasun bat, bestetik nabaritzen den zerbait delako, eta, azkenik, nire eskubidea delako. Elkarriketa guztiak oso ondo joan dira datu txiki hau aipatu arte. Inork ez du ausardia izan aurpegira esateko hauxe denik ez hartzearen arrazoia, baina ez dut beharrik izan. «Ez dugu zure ‘profileko’ norbait bilatzen...» esaldia inoiz baino egokiagoa da kasu honetan (ironia pixka bat).

XXI. mendean eta horrela jarraitzen dugu. Oso ongi, ba diru laguntzak eskatzera noa, zoritxarrez bizi garen sistema kapitalista honetan diru gabe ezin baikara bizi. Langabezia: ez duzu, ez daukazulako urtebete kotizatuta. Subsidioa: ez duzu, ez daukazulako sei hilabetetik urtebetera kotizatuta. Diru sarrerak bermatzeko errenta: ezin duzu, ezkonduta zaude eta zure “senarraren” (orain azalduko dut zergatik jarri dudan kakotx artean) soldatarekin (mila euro inguru) bizi zaitezket. Haurra jaiotzen denean dauden diru laguntzak: batetik 90 egun baino gehiago izan behar

dituzu kotizatuta eta bestetik zure bikotearen soldataren arabera ikusi beharko dugu ea jaso dezakezun ala ez.

Behin honetara iritsita nire hausnarketa: lana nahi dut eta ez didazue ematen, ondorioz, ez dut soldatarik eta ez dut kotizatzen, diru laguntzak kobratzeko kotizatu egin behar dut baina ez dut lanik eta nire “senarraren” mila euro inguruko soldatarekin hiru unitateko familia bat aurrera atera beharko dugu (kasu honetan emaztea, ezkontzera derrigortu gaituelako sistemak bestela ez dituelako senar batek dituen “aitatasun” eskubide berak izango). Hau da, nire bizilagun gizonarekin umea erregistratzera joan naiteke inongo justifikaziorik gabe esanez haurraren aita dela, baina bi emakumeren kasuan ezkonduta egon behar gara (ez digu beste ezerk balio) biak ama garela justifikatzeko. Nire bikotekidea ama izatea hautatzen badut –eta ez dut zalantza izpirik– beste eskubide batzuk galtzen ditut. Eta orduan ze alternatiba dut? Bat bera ere ez. Berdintasunaren izenean, amen! •

Gizakia ala robota

Antton Izagirre

Duela egun batzuk, gure arteko bizikidetzari buruzko foro batean, Joseba Zulaikak parte hartu zuen Renotik. Gurean gertatutakoaz bere iritzia emateaz gain, han, Ameriketako Estatu Batuetan, kezkatzen duen eta gertutik bizi duen gai bati buruz aipamen interesgarriak egin zituen. Droneez eta horien bidezko gerren ondorioez jardun zuen. Ez zen soilik droneek eragindako heriotza kopuru edo albo ondorioez aritu, milaka soldadu drone gidari beren baitan jasaten ari diren nortasun nahasteak ere aipatu zizkigun, erruduntasunak eraginda burua galtzera iristeraino.

Eta zer pentsa ematen du jakiteak gerra makinon atzean dauden erabakietan azken katebegia diren soldaduek bizi duten zama astuna. Hala, galdera honakoa da: droneak erabiltzeko erabakia hartu eta

erasotako helburua aukeratu duten agintariek, agindua eman duten autore politiko eta intelektualek, ez ote dute erruduntasun sindromerik bizi?

Burutazio horiek tarteko, autore beraren “Biolentzia eta fantasia: droneen kasua” artikulua argigarri suertatzen zaigu egoera ulertzeko. Obamari erreferentzia eginenez, galdetzen du: «Nola liteke presidente bihurtu den konstituzio zuzenbideko irakaslea hain lasai egotea droneen hilketa programarekin?». Segidan azaltzen duenez, «fantasia den traumaren muina» onartzeko modua, agintariek eraikitzen duten «fantasia den errealtate» da. Hartara, «ametsaren eta errealtatearen arteko oposizioan, fantasia errealtatearen alderdian dago». Alegia, fantasiaren eta ametsen gainean eraikitzen dute errealtatea eta hori da egia osoa eta bakarra.

Kezkagarriagoa da etorkizunari begira egiten den aurreikuspena. Robot teknologiaren “aurrerapenari” esker, «robot armatu autonomoak gerrara iristen ari dira». Behin programatuz gero, ez du gizakiak haienganako erabaki gaitasunik izango, ez zaio gizakiari zalantza baten aurrean erabakiz aldatzeko, azken hautua egiteko, aukerarik utziko; roboten erabaki zikloak minisegundotakoak izango dira, hala, erabakia programaturiko robotena izango da.

Fantasia horretan murgildurik, ez ote du gizakiak etorkizunean ez agintarien ez politikoen ez soldaduen kontzientziaz, etikaz edo moralaz kezkatu beharko? Erantzuleak robotak izango badira, droneek «ez dute biharamunik, edo amodiozko desengainurik; ez dute bere buruaz beste egiten». •